

## BALETA: Elkartea hanka-puntetan jartzen zuen jarduera

**B**aletak euskal kulturarekin eta dantzarekin lotura zuzenik izan ez arren, Elgoibarko Izarran ez zen batere erreparorik izan baleta erakusten hasteko. Eta, gainera, estimazio polita izan zuen. 30 ume inguru animatzen omen ziren urtero-urtero baleta ikastera.

Baleta ikastolan zebiltzan umeei ematen zitzaaien, nahi zutenei, eta neskak zein mutilak animatzen ziren, neskak

*30 ume inguru animatzen  
ziren urtero-urtero baleta  
ikastera. Neskak zein  
mutilak animatzen ziren,  
neskak gehiago izaten  
baziren ere.*

gehiago izaten baziren ere. Baina mutilen artean, besteak beste, gaur egun ondo ezagunak diren bi herritarrek jardun zuten: Arnaldo Otegik eta Josu Mujikak. Arnaldok baleta laga eta futbolari ekin zion berehala, baina Josu Mujikak baletari lotuta segitzen du oraindik ere.

Errusian egon eta Eibarren bizi zen emakume batek ematen zituen balleteko klaseak. Astean pare bat orduan elkartzen ziren, eta San Anton egunean Odeoian egiten zen jaialdian izaten zuten urtean zehar ikasitakoa jende aurrean erakusteko aukera.

Eta ez pentsa baletarena bizpahiru urteko moda pasakorra izan zenik; bastante urtean iraun zuen.



"Odeiko balet emanaldixa grandiosua izaten zan".



Neskak nagusi ziren, baina tartean izaten zen mutilik ere. Ezagutzen al dituzue?



Moñoak txukun orraztuta; eskutik helduta; hanka-puntetan; denak batera, ...baleta zen.